# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko maiatzak 22 · 1142. zenbakia




# MUSIKA DOINUAK
## KONFINAMENDUAN LAGUN


Colegiado

EUKI
higiezinen zerbitzua

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

**ADMINISTRAZIOA**
- ✔ Aurrekontua
- ✔ Kontabilitatea
- ✔ Jabeen batzarretan izatea
- ✔ Aktak egitea

**KUDEAKETA**
- ✔ Obrak
- ✔ Lizentziak eta laguntzak
  - • Eusko Jaurlaritza
  - • Udala

**LEGE AHOLKULARITZA**
- ✔ Jabetza horizontala
- ✔ Ezordaindutakoen erreklamazioa
- ✔ Sortzen berriko komunitateen eraikuntza

24 ORDUKO ZERBITZUA

Zure eskura jartzen dugu zure komunitateari dagokion informazio guztia urteko egun guztietako 24 orduetan

30 URTETIK GORAGOKO ESPERIENTZIAK BERMATZEN GAITU

943 200 358 - www.eukicomunidades.com - ARRETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONOZ: 09-14:00 eta 15:30-19:30











# Eskutitzak

**Patxi Ruiz gose eta egarri greban**

Lerro hauek idazten ari garen unean Patxi Ruiz euskal preso politikoak 8 egun daramatza Murtzia II espetxean gose eta egarri greban.

Covid19ak espetxetan ezarri duen salbuespen egoera presoentzat oso gogorra ari da izaten, tartean bisitarik gabe daude. Presoen zaurgarritasun egoera salatu eta kutsatzeen aurkako segurtasun neurriak eskatzeko abiatutako borrokari, funtzionarioek Patxi mehatxatuz erantzun zioten.

Zapalkuntza horrekin amaitzeko gose eta egarri grebari ekin zion. Egoera larria da, oso.

Bere taldearen estrategia politikoa eta ezker abertzalearena ez datoz bat, baina horrek ez du funtsezkoena aldatzen: Patxi Ruiz bere herriaren alde borrokatzeagatik dago preso. Eta guk, borrokalari guztiak, kartzelan, ihesean eta deportazioan daudenak, etxean nahi ditugu, gaixo daudenetatik hasita.

Horregatik, Eibarko Sortuk elkartasuna adierazi nahi dio Patxiri eta espetxe politikaren ankerkeria salatu nahi du. Halaber, Murtzia II-ko zuzendariari zein espainiar Estatuko presidente Pedro Sanchezi berehala neurriak har ditzala eskatzen dio. Premiazkoa da, egin ezean ondorioen arduradun izango baitira.

**Eibarko Sortu**

# Astean esanak

"Aspertzen den jendeak duen arriskua da ez dakiela aspertuta egoten, denbora guztian aktibo egotera behartu gaituztelako. Zergatik emititu behar du telebistak 24 orduz, zergatik oheratu behar gara mugikorrarekin? Honako gimnasia taula egin behar duzu, saiatu eskulan horrekin... Ahalegintzen dira konbentzitzen zoriontasuna gugandik kanpo bilatu behar dugula, eta hor dago arazoa. Ez dizute tarterik lagatzen pentsatu eta hausnartzeko, zure buruaz beste egingo duzun beldur dira akaso? Eta arazo-sortzaileei begira, hor dugu familia: laguntza emango dizu, baina baita etsipena ere. Derrigortuta moduan gaude gurasoak edo seme-alabak maitatzera, baina badira kasuak, ahaleginak ahalegin, inguruko hori ezin duzuna jasan, berarekin lau gen eta abizena bakarrik partekatzen duzulako".

**ISABEL BONO, idazlea**

"Futbola ez dela politizatu behar esaten dute futbola erlijio bihurtu dutenek. Gizonezkoen futbola, noski. Saskibaloia ere hor dago, airean, baina hori ere soilik gizonen arloan. Emakumezkoen kirola desagertu egin da hemen. Ligak bertan behera utzi dituzte. Ez dira profesionalak. Ez dute produzitzen. Koronabirusak andrazkoak sakrifikatu ditu lehenik, krisi garaietan gizonezkoak duelako lehentasuna. Emakumeak bere rol tradizionaletara itzul daitezela: ´Etxera joa zaitezte aitona-amonak zaintzera. Etorriko dira sasoi hobeak´, xuxurlatu die birusak, goxo. Ondo gogoan dut ETB-n ari nintzenean Radio Euskadira deitzeko agindu zidatela, saskibaloiko partida baten emaitzaz galdetzeko. Hango kazetariak, pope horietako batek: ´Saskibaloiari buruz galdetzeko deitu didazu? Gogoratzen zara umea zinenean nork jokatzen zuen saskibaloian?´. ´Neskek´, erantzun nion. ´Horixe. Neskek, pololoak jantzita´, berak. Kazetari horrentzat ia iraingarria zen berari saskibaloiari buruz galdetzea. Gizona naiz, niri futbolaz galdetu".

**JOSE MARI PASTOR, zutabegilea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MURGILDU.**➜ Uretan sartu. "Gura neban murgiltzia, baiña ez eguan nahikua ur". ➜ Zeregin batean buru-belarri sartu. "Korputz eta arima murgildu zan autu hartan".


eta kitto!
Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA**
Urkizu, 11. 20600 Eibar
**TELEFONOAK**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
**FAXA** 943 20 28 72
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
**ELKARTEAREN E-MAILAK**
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**
Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez
**ADMINISTRAZIOA**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA**
Ana Aizpurua
**ERREDAKZIO-BURUA**
Silbia Hernandez
**DISEINUA**
Maku Oruezabal
**MAKETAZIOA**
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**
Malen Jainaga eta Malen Illarramendi
**HIZKUNTZA ARDURA**
Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA**
Itziar Albizu eta Belen Ulazia
**TELEFONOA**
943 20 67 76
**AZALEKO ARGAZKIA**
Iraide Ansorena
**BANAKETA-ARDURA**
Idoia Labado

**TIRADA**
7.450 ale
**INPRIMATEGIA**
GERTU koop. (Oñati)


**COPYRIGHT-A**
...eta kitto!


**LEGE-GORDAILUA**
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)


1


2

# Orain dela urtebete horrelakoak ginen

PSE-EEk irabazi zituen iazko Udal hauteskundeak, zinegotzi bat galdu arren. Alkatearen taldeak bederatzi zinegotzi lortu zituen, EAJ-PNVk sei, EH Bilduk bost eta Elkarrekin Podemosek aurreko lau urteetan Irabazik zuena eskuratu zuen. Debabarreneko Esperientzia Eskolako 15. promozioko 25 ikaslek ikasturtea agurtu zuten Armeria Eskolako ekitaldian. "Hurbiltzen" izeneko proiektua landu zuten ikasturte horretan. Efren Floresek hilabetea eman zuen Lesbosen Zaporeak Gobernuz Kanpoko Erakundearekin iheslarien esparruan bizi den jendeari jaten ematen. 6.000 errefuxiatu pilatuta bizi diren esparruko berri eman zigun. Ignacio Zuloagaren 100 obra inguru ipini ziren ikusgai Bilboko Arte Ederren museoan, artistaren atzera begirakoa osatzeko lanekin urrira arte iraungo zuen erakusketan. Ikasturte amaierako kontzertua eskaini zuten Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek Coliseo antzokian. Mendilibarrek beste urtebeterako kontratua sinatu zuen Eibar FT-rekin.

***Argazkiak:*** 1- Esperientzia Eskola. 2- Udal hauteskundeak. 3- Efren Flores Lesbosen. 4- Zuloaga ikusgai Bilbon. 5- Musika Eskolako ikasleak. 6- Mendilibar.


3


4


5


6





## Hasi dira herria oinezkoentzat egokitzeko aldaketak egiten

>>> Eguaztenean jakitera emandakoaren arabera, Eibarko Udala hasi da Eibarko kaleetan hainbat aldaketa eta konponketa egiten, oinezkoek pasiatzeko toki gehiago izan dezaten.

Eguaztenetik bertatik hasita, Julian Etxeberria kaleko 2, 4 eta 6. zenbakiak eta Zuloagatarren kalea oinezkoentzat bakarrik zabalduko dituzte, 15:00etatik 23:00etara, asteko zazpi egunetan. Horrekin batera, Otaola Hiribideko espaloi aldameneko aparkalekuen aldea egokitzen ari da, oinezkoentzat toki gehiago egoteko. Horren harira, aparkatzeko eta zamalanetarako kendu behar diren tokien alternatibak aztertzen ari dira Udaltzaingoan.

Bestetik, oinezkoen zirkulazioa antolatu eta pertsonen arteko kontaktuak saihesteko asmoz, hainbat tokitan gezi batzuk margotuko dituzte espaloian, norantza markatzeko: alde bat igotzeko izango da eta bestea, berriz, jaistekoa. Eta, horrekin batera, Hezkuntza Sailarekin kontaktuan ipini dira, eskola batzuetako patioak zabaltzea eskatzeko.

## Errebal Plataformak behin-behineko espaloia eskatu du

>>> Errebal Plataformak erabilera anitzerako eraikina egiteko lanean ari diren tokian espaloia lehenbailehen egitea eskatu dio Udalari: "Eskailera mekanikoen paretik San Agustin kaleko bidegurutzeraino 5 metro zabal inguruko espaloia dago, hormigoituta, baina lanean ari direnek bakarrik erabiltzeko da eta hesiz inguratuta dago. Lanak geratu zirenetik bi hilabete pasatu dira eta, lanera bueltatuta ere, zati bati behintzat uko egiteko moduan izango direla pentsatzen dugu. Errebalen urteak daramatzagu espaloi hestu-hestuarekin, herriko kale nagusienetakoa izan arren. Jendea pasatzeko tokirik ez dagoela eta, honezkero ohikoa bihurtu da jendea errepidera irtetzen ikustea".

Osasun agintariek ematen dituzten segurtasun neurriak bete ahal izateko zerbait egitea exijitu nahi diote Udalari: "Lanak bi hilabetez geratuta egon diren bitartean, aipatzen dugun bide zati hori ez du inork erabili. Une honetan bi kontainer daude bertan, paraleloan. Edukiontzi horiek beste tokiren batean ipintzea edo, behintzat, zabalera guztia ez okupatzeko ilaran ipintzea proposatzen dugu".








## TUTULUMENDI




Idurre Iriondo

# Armeria Eskola eta Ikasle Ohien Elkartea lanean ari dira, errealitate berrira egokitzen joateko

>>> Beste asko bezala, Armeria Eskola eta bere Elkartea egoera berrira egokitu behar izan dira: "Alarma-egoera ezarri zutela ikusita, eta osasun-gomendioei jarraituz, telelanaren bidez lan egiteko modu berri bati ekin genion, eta egoera berrira egokitzeko malgutasunez jokatu behar izan dugu. Era berean, segurtasun-protokolo berriak ezarri behar izan ditugu, zentroan aurrez aurre egon behar zuten langileek inolako arriskurik ez izateko. Horrekin batera, gizarteari gure ekarpena egitea erabaki genuen eta, horrela, modu erabat altruistan, 2.500 babes-maskara baino gehiago egin eta banatu ditugu, zazpi irakasleren lanari esker".



Bien bitartean, diseinu-lanak bizkortu eta dagoeneko prest dago www.armeriaeskola.eus web orri berria. Zer etorriko den jakin barik ere, hurrengo ikasturtea antolatzeko garaia da: ikasle berrientzako aurrematrikula epea ekainaren 1etik 19ra bitartekoa izango da. Horren harira, martitzenean egin zituzten ate-ireki birtualak, "baina aurretik hitzordua eskatuz gero, posible da aurrez aurre egotea eta elkar ezagutzea".

Erantzuna emateko orduan Armeria Eskolako Elkartea bizkorra izan da: "Enpresekin batera lan egin dugu, estrategia optimoa definitzeko". Bestalde, bazkide ohien kuoten ordainketa irailera arte atzeratzea erabaki dute. Informazioa eskatzeko 943 20 32 44 telefonora deitu edo elkartea@armeriaeskola.eus helbidera idatzi daiteke.

# Debegesa aurrez-aurreko arreta ematen hasi da, hitzorduarekin

>>> Astelehenean hasi ziren Debegesa Garapen Agentzian aurrez-aurreko arreta bulegoan ematen, baina bakarrik aldez aurretik hitzordua eskatzen duten herritarrak hartuko dituzte. Ordua eskatzeko 943 820 110 telefono zenbakira deitu behar ko da, 08:00etatik 15:00etara. Bulegoan, besteak beste, lana bilatzeko prozesurako orientazioa, errehabilitaziorako dirulaguntzei buruzko informazioa edota ekintzailetza prozesurako aholkularitza eskainiko dituzte. Azaldu dutenez, bulegoa zabaldu aurretik osasun agintariek gomendatutako babes eta higiene neurri guztiak aplikatzeko egokitzapena egin dute. Gainerako kontuetarako, eskuragarri dauden beste komunikazio eta arretarako bideak erabiltzera animatzen dituzte herritarrak, arreta emateko kanal telematikoak indartu dituzte eta.



# Astelehenean itzuliko dira jubilatuen protestak Untzagara

>>> Eibarko Pentsiodunen Elkarteko ordezkariek jakinarazi dutenez, datorren astelehenean hasiko dira Untzagan elkartzen, koronabirusaren pandemia hedatzen hasi aurretik, astero egiten zuten bezala, pentsio publiko eta duinen aldeko kontzentrazioa egiteko. Hala ere, gaur egungo egoerara moldatu eta, kutsatzeak saihesteko, segurtasun eta higienea zainduko dituzte: pertsonen artean bi metroko distantzia gordetzeko, harmailetan izango da elkarretaratzea, 11:30ean hasi eta 11:45ean amaituko da eta, parte hartzen dutenei, maskara ipini eta denbora osoan jantzita izan beharko dutela gogorarazi nahi diete, denen osasuna zaintzeko.







# Udal Artxiboak bideoa egin du itxialdiko irudiekin

>>> COVID-19aren eraginez itxialdia hasi zenean, Udal Artxiboak herritarrei dei egin zien argazkiak egin eta bidaltzeko, "bizitzen ari ginen une ezohikoaren inguruan irudi-banku handi bat osatzeko". Era guztietako argazkiak eskatu zituzten eta eibartarren erantzuna oso ona izan da, ehunka argazki bildu dituzte-eta. Udal Artxibotik adierazi dutenez, *Eibar nire leihotik* ekimenak "herritarrak protagonista egin ditu koronabirusak gizartean izandako eragina neurtzerakoan eta, horrekin batera, memoria kolektiboaren parte bihurtu ditu. Eskerrak eman nahi dizkiegu eibartar guztiei, emandako laguntzagatik eta, era berean, emaitza partekatu nahi dugu, jendeak bidalitako irudi batzuekin egin dugun bideoaren bidez". Udal Artxiboak *YouTube*n duen kanalean dago ikusgai.

## Jabetze Eskolak bi ikastaro antolatu ditu

>>> Koronabirusak eragin duen egoera dela eta, Jabetze Eskolako aurrez aurreko ikastarorik ezin dute eman, baina, horren ordez, online egin daitezkeen beste batzuk antolatzera animatu dira: Covid-19aren garaiko krisi eta doluen inguruko tailerra ekainaren 1etik 22ra bitartean izango da, astelehenetan, 18:00etatik 20:00etara. Inma Merino de Castro izango da irakaslea eta, tailer horretan, labirintoaren sinboloa erabiliz, krisi pertsonala zer den azteртuko dute, "zer gertatzen zaigun jakiteko, gure emozioak ulertzeko eta geure buruari eta besteei laguntzeko tresna emozionalak eskuratzeko". Eta psikologia feministari buruzko ikastaroa, berriz, emakumeen ahalduntzerako tailerra izango da, ekaineko martitzenetan (2, 9, 16 eta 23an), 18:00etatik 20:00etara. Formatzailea Iani re Estebanez izango da.

Bi kurtsoak emateko *Zoom* plataforma erabiliko dute. Ikastaro bakoitzaren prezioa 5 eurokoa da Eibarren erroldatuta dauden emakumeentzat, eta beste guztientzat, berriz, 10 eurokoa. Parte hartu nahi dutenek, pegora@eibar.eus helbidera idatzi beharko dute, matrikula orria bete eta bidaltzeko. Horretarako epea zabalik dago. Zalantzak argitzeko, Andretxeara idatzi (andretxea@eibar.eus) edo deitu (688 85 34 40) daiteke.

# Eguaztenetako azoka Urkizura bueltatu da, 11 janari-posturekin

>>> Pandemiaren eraginez bederatzi astetan eguaztenetako merkadilloak egin barik egon ondoren, aste honetan abiatu da berriro Urkizukoa. Beti bezala, goizetik zabaldu dituzte postuak, hori bai, segurtasun neurriak betez eta horrek eragindako ilarak zainduta. Oraingoz jateko gauzak saltzen dituztenek bakarrik hartuko dute parte, segurtasun-tartea gorde ahal izateko bi parkeetan banatuta egon diren 11 postu ipinita.





## Ur Kontsortzioak gastuak arintzen lagunduko du

>>> Gipuzkoako Ur Kontsortzioak ezohiko neurriak hartzea erabaki du, COVID-19ak sortutako krisiaren aurrean herritarren beharrei erantzuteko eta zailtasun ekonomikoak arintzen laguntzeko. Neurriak Batzorde Exekutiboan onartu dira, aho batez, eta hauek dira herritar guztiei zuzendutakoak: fakturak ordaintzeko borondatezko epea abenduaren 31ra arte luzatu dute; errekargu eta interes bariko zatikako ordainketa (frakzionatua) egiteko erraztasunak emango dira; eta alarma egoerak irauten duen bitartean, ez da ur mozketarik egingo ez ordaintzeagatik. Eta alarma egoerarengatik itxita egon diren komertzio eta ostalaritza negozioei laguntzeko, bigarren hiruhilekoari dagokion fakturaren tarte finkoa %100 hobetsita egongo da, hau da, ez da ordaindu beharrik izango.

Informazio gehiago nahi izanez gero, www.gipuzkoakour.eus atarian begiratu daiteke edo, bestela, URA-ren telefonora deitu (902 30 22 22 / 943 31 86 02).

Iñigo Elosegi Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Zuzendari Gerentearen berbetan, "Gipuzkoako udalerriei eta ondorioz Gipuzkoako herritarrei, behar-beharrezko eta oinarrizko zerbitzua emateko entitate publikoa gara. Gure ardura da herritarrek kalitatezko ur zerbitzua izatea".

# Errima frantsesak

Pierre Lacoste Tarben (Frantzia) jaio zen, Pirinioen magalean, baina Tolosara joan zen bizitzera ondoren, Okzitaniako hiriburura. Hiri handia izanik, aldirietan bizi izan da. "Frantziako hiri handien barruan bi hiri egon ohi dira: erdigunea, klase sozial altuenekin; eta aldiriak, langile-klasearekin, pobreenekin". Tolosa industrialde garrantzitsua da eta Airbus hegazkin-ekoizle handiaren egoitza.

**Pit lagunentzat**

Pierrek eskola gogoko zuen, baina nahiko alperra zen. "Gauzak erraz ikasten nituen eta horrekin nahikoa nuen". Ikasle ona izanik hainbat beka jaso zituen, eta Tolosako periferia utzi eta erdigunera joateko aukera izan zuen. "Erdiguneko jendearekin elkartzeko balio izan zidan". Dena dela, auzoko izaerari harro eusten dio Pitek. "Pit pitbulletik dator. Nahiko txikia eta indartsu samarra naizenez, txakur mota horren antza omen dut", dio barrez.

**AEBn burua ireki**

18 urte bete zituenean lanean hasi zen ikasketak ordaindu ahal izateko. "Han gauzak ez dira Euskal Herrian bezala. Oso gazteak garenean etxetik irteten gara geure kabuz bizitzeko". Lan egin zuen, baita ikasi ere, eta dirua aurreztu ahal izan zuen bidaiatzeko. "Lagunen ametsa AEBra joatea zen, beti eman zigun atentzioa". Beraz, 21 urte bete zituenean Ameriketara joan ziren. "21 urte eduki behar dira AEBn alkohola edateko edo Ford Mustang bat alokatzeko. Ahalik eta gehien gozatzea zen gure asmoa". Mundu berri bat aurkitu zuen han eta inflexio-puntua izan zen bere bizitzan. "Burua ireki genuen eta behin bidaiatzen duzunean ezin diozu bidaiatzeari utzi".

**Aberatsen ghettoa**

Pitek jatorri espainiarra du. "Amaren gurasoek Frantziara egin zuten ihes Francoren sasoian". Beraz, gazteleraz hala nola moldatzen zenez eta Euskal Herrian familia zuenez, 2015ean hona etortzea erabaki zuen. Eibarrera iritsi zenean Tolosako aldirietan zegoela iruditu zitzaion. "Oso industriala da eta hain toki txikian etxe asko daude. Nire paisaia ez zen asko aldatu", dio barrez. Bizimodua, ordea, bai. "Kalean hainbeste jende ikusteak asko harritu ninduen. Jendea dotore janzten da, auto onak gidatzen ditu... aberatsen ghettoa iruditu zitzaidan, itxuran behintzat".



Eibar FT taldea gustoko du Pierre 'Pit' Lacostek.

> "Ne pas vendre la peau de l'ours avant de l'avoir tué"

> **"Ez saldu hartzaren azala hura hil baino lehen"**

**Egokitzapen erraza**

Eibarko bizimodu lasai eta segurua asko gustatu zitzaion Piti eta horrek asko lagundu zion egokitzeko orduan. "Frantzian bizi nuenarekin alderatuz ez nuen presio edo tentsiorik nabaritzen, eta edonorekin egin nezakeen berba arazorik gabe". Klimarekin izan zituen arazoak hasieran, baina ezin hobeto bizi da hemen. "Mendiz inguratuta gaude, hondartza hurbil dago, jendeari kirola egitea gustatzen zaio eta baita tabernetara joatea ere. Edonor egokitu daiteke horrelako toki batera".

**Norte Frio Click**

Rap eta hip-hop musikek arrakasta handia dute Frantzian. Euskal Herrian ere gero eta gehiago entzuten da, eta poliki-poliki hasi dira euskal raperoak irteten. Pitek adibidez, Norte Frio Click taldea osatu du Ibai eta B. Boyrekin. "Eibarrera iritsi nintzen lehen egunean gauez irten nintzen herria ezagutzeko asmoz eta brake dance egiten zuen gazte talde batekin egin nuen topo. Eurekin bat egin eta orain taldekide ditudan lagunak ezagutu nituen". 2019an diskoa grabatu zuten Legarreko estudioan Walter Tuzzeorekin ("demaseko profesionala da"), izugarria Pitentzat. "Txikitako ametsa betetzea izan zen, jolas bat errealitate bihurtzea". Gazteleraz bikain moldatu eta euskaraz trebatu arren, Pitek frantsesez rapeatzen du. "Nire ama hizkuntza da eta askoz hobeto moldatzen naiz. Gainera, nire auzoko argota erabiltzen dut".



<<< **ANDREA GARCIA** • Musikaria >>>

# "Aurrera jarraitu nahi dut, oinak lurrean ditudala, eta egiten dudanaz disfrutatuz"

Bere lehen single-a atera berri du Andrea Garcia musikari eibartarrak, "Que todo pase" izenekoa. Prozesu honetan guztian bizi izan duen esperientzia eta aurrera begirako planak gurekin partekatu ditu elkarrizketa honetan.


"Que todo pase" single-aren portada.

MALEN ILLARRAMENDI

**Zure lehen single-a atera berri duzu gaur. Zer sentitzen da?**

Ez naiz sentitzen dudana azaltzeko gai; hau guztia zoramena da. Betidanik izan dudan ametsa da, baina beti pentsatu izan dut inoiz ez zela une hau iritsiko. Konturatu naiz, saiatuta eta lan eginda, dena lortu daitekeela. Nire lehen kanta entzuten dudan bakoitzean, sinestezina iruditzen zait; oso pozik nago, zoriontsu. Honek guztiak aldaketa handia dakar nire bizitzan; izan ere, zaletasun gisa ikusten nuen orain arte musika eta, orain, bizimodua izan daitekeela ohartu naiz.

**Kanta eta bideoklipa sortu dituzu. Zein plataformatan ikusi eta entzun daitezke?**

Plataforma digital guztietan dago eskuragarri: YouTube, Spotify, iTunes... Behin argitara aterata, zabalkunde handia egitea erabaki dugu. Gaur, barixakua, 00.00etan argitaratu da.

**Nola suertatu zitzaizun aukera berri hau?**

Niri dagokidanez, sare sozialek izugarri lagundu didate, bertara igotzen bainituen "cover"-ak eta produktu musikalak. Produktore batek, Jagobak, nire lanak entzun eta berarekin lan egitea proposatu zidan, egiten nuena gustuko zuelako. Onartu beharra dut berari esker lortu dudala oraingo aukera hau.

**"Que todo pase" deitzen da single-a. Zertaz hitz egiten du abestiak?**

Ezin ikusi baina elkarren beharra duten bi pertsona ditu hizpide kantak. Egia esan, COVID-19aren aurretik sortutako lana izan arren, oraingo egoerarekin are zentzu handiagoa hartu du, eta ezin hobeto irudikatzen du une honetan guztiok bizitzen ari garena.

> **"Zaletasun gisa ikusten nuena orain bizimodu izan daitekeela ohartu naiz"**

**Zein erantzun espero duzu entzuleen aldetik?**

Uste dut jendea asko harrituko dela, nire jarraitzaileak ohituta daudelako egiten ditudan "cover"-ak entzutera, baina ez dut uste abesti propioa aterako nuela espero zutenik. Entzuleen gustukoa izango delakoan nago, baina, auskalo! Hori ezin da jakin benetan jendearen erantzuna ikusi arte. Badakit ingurukoak nire alboan egongo direla. Gainera, oso lan-talde ona izan dut, eta emaitza profesionala lortu dugula esango nuke, eta hori jendeak ikusi egingo du.

**Aurrera begira, beste abestirik ateratzeko lanean zabiltza? Zeintzuk dira zure planak? Hau guztia bide luze baten hasiera besterik ez da?**

Dagoeneko beste abesti batzuk ditut esku artean, eta aurrera begirako plana da honetan lanean jarraitzea. Ahal dudan guztia egingo dut proiektu hau aurrera atera dadin. Ilusio handia daukat, eta nire denbora guztia eskainiko diot abesti berriak sortzeari. Hala ere, gero gerokoak! Hilabete gutxi barru amaituko ditut unibertsitateko ikasketak (Arte Ederrak) eta musika-mundu honetan murgilduko naiz buru-belarri.

**Kanta berriak sortzen ari zarela diozu. Estilo berekoak ala estilo musikal berriekin saiatuko zara?**

Une honetan ez daukat definitzen nauen estilorik. Hori dela eta, musika mota ezberdinekin ari naiz lanean: pop-a, latinoa, balada... Denborak esango du zein den nire esentzia; orain gauza ezberdinak probatzeko momentua da.

**Elkarrizketa hau baliatu nahi duzu norbaiti eskerrak emateko?**

Eskerrak eman nahi nizkieke nigan konfiantza izan duten Jagobari (produktorea) eta Aliri (nire ordezkariari), haiei esker ari bainaiz hau guzti hau lortzen. Ezin aipatu gabe utzi, era berean, etxekoak, beti ondoan izan ditudan eta izango ditudanak: ama, aita eta Paul. Aurrera jarraitu nahi dut, oinak lurrean ditudala, eta egiten dudanaz disfrutatuz.



Atzo indarrean sartu zen arau berriaren arabera, toki publikoetan gaudenean bi metroko segurtasun-tartea zaintzeko modurik ez dagoen guztietan derrigorrez jantzi beharko dugu maskara, sudurra eta ahoa ondo estalita.

# Maskara erabili behar da bi metroak ziurtatu ezin direnean

**Maskaren erabilera arautzen duen agindua argitaratu zuen eguaztenean Espainiako Gobernuak aldizkari ofizialean. Atzo bertan sartu zen indarrean agindua eta 6 urtetik gorako guztiei eragingo die, alarma egoerak iraun bitartean. Maskara jartzea, beraz, derrigorrezkoa izango da bi metroko segurtasun tartea zaindu ezin den tokietan, bai erabilera publikoa duten espazio itxi guztietan baita aire zabalean ere. 3 eta 5 urte bitarteko haurren kasuan, bestalde, ez da derrigorrezkoa izango, baina bai "gomendagarria", beti ere arau horren arabera.**

Orain arte garraio publikoan baino ez zen derrigorrezkoa maskara erabiltzea, baino atzoz geroztik toki publiko guztietan erabili beharko dugu, nahitaez, pertsonen artean bi metroko segurtasun tartea dagoela ziurtatu ezin den guztietan. Maskara erabiltzea komenigarria den ala ez, horretan iritzi ezberdinak daude, baina araua indarrean sartzeko arrazoien artean, "leku itxietan eta jendea pilatzen den tokietan, Osasunaren Mundu Erakundeak koronabirusa kutsatzeko arriskua ahalik eta gehien murriztea" eskatu duela aipatu du Sanchezen Gobernuak. Eta, gaineratu duenez, "frogatuta dago maskarek gaitzaren hedapena saihesteko gaitasuna dutela".

Aukeran, maskara higieniko edo terapeutikoak erabiltzea gomendatzen dute eta, beraien funtzioa modu egokian bete ahal izateko, jakina, ahoa eta sudurra estali beharko dute. Bestalde, arauak berak zehazten duenez, maskara jarrita izanagatik, ez dira albo batera laga

**Maskara higieniko edo terapeutikoak erabiltzea gomendatzen dute agintariek, gaitzaren hedapena saihesteko**

behar COVID-19aren hedatzea eragozten duten gainontzeko osasun neurriak, distantzia zaintzea eta eskuak garbitzea, besteak beste.

Maskara ezberdinak daude merkatuan, baina orohar hiru multzo nagusitan bereizi daitezke: maskara higienikoak, maskara kirurgikoak eta norbera babesteko ekipamendutzat jotzen diren maskarak daude. Azken horiek partikulen eta aerosol likidoen aurrean iragazki gisa funtzionatzen dute ohikoenak pandemiarena bezalako egoeretan eta osasun-langileentzat. Maskara erabiltzeak garrantzia badu ere, pandemiari aurre egiteko oinarrizko neurriak eskuak sarri garbitzea, pertsonen artean metro eta erdiko tarteari eustea, eta eskuekin kontaktuan dauden gainazalak ahal bezain ondo garbitzea dira.







Maskarak doan hartzeko makinak Azitaingo eta Kantoi gasolindegietan, Calbeton kaleko vending-ean, Berdintasunaren pasealekuan, Orbea Kiroldegian eta Ipuruan, Eibar K.E.-ren dendan daude.

**Maskara Higienikoak:** Apirilaren 13az geroztik metro eta aldiriko trenetako geltokietan banatzen dituzten maskarak dira. Ez daude erabiltzailea arrisku zehatz batengandik babesteko diseinatuta, eta ez dira gomendatzen eragile arriskutsu baten aurrean aritzeko. Maskara higienikoak hiru motatakoak izan daitezke: UNE 0064 eta 0065 araudia betetzen dutenak; beste zehaztapen batzuk betetzen dituztenak; eta zehaztapenik gabeko maskarak. Probarik eta egiaztatzerik egin ez dizkieten maskarak dira. Kasu guztietan, erosotasunagatik eta higiene arrazoiengatik, maskara lau ordutik gora ez erabiltzea gomendatzen da.

**Maskara Kirurgikoak:** Erabiltzailearen edo jantzita daramanaren ingurukoak babesteko balio du, arnasketan sortutako partikulak kanpoaldera iristea galarazten baitu. Era berean, erabiltzailea bera ere pittin bat babesten du, fluido biologikoen zipriztinen aurka, zehazki. Bakterioak filtratzeko eraginkortasunaren arabera, maskara kirurgikoak I edo II motakoak izan daitezke. Bigarren horiek odola eta bestelako likido biologikoak jasateko gai dira. Hauen kasuan ere, lau ordutik gora ez erabiltzea gomendatzen da.

**Maskara ikutu aurretik eskuak ondo garbitu behar dira eta, ipintzeko, bakarrik gomei heldu. Kendu baino lehen eskuak garbitu**

**NBE Maskarak:** Norbera Babesteko Ekipamendutzat jotzen dira eta osasun arloko profesionalek erabiltzeko prestatuta daude. Ingurumenean dauden partikulak eta aerosol likidoak iragazten dituzte, eta, horrela, erabiltzaileek ez dituzte horiek inhalatzen. Iragazpen-eraginkortasunaren arabera, maskara FFP1, FFP2 edo FFP3 motakoa izan daiteke. COVID-19aren aurrean babesteko FFP2 maskarak gomendatzen dituzte.

**Iragazpen-eraginkortasuna**

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, FFP1 maskarek % 78koa dute gutxieneko iragazpen-eraginkortasuna, eta, gehienez, % 22koa da barnealdera sartu daitekeen kopuru edo "ihesaldi" maximoa. Material inerteen partikulekin lan egiteko erabili ohi dira; FFP2 maskaren iragazpen-eraginkortasuna % 92koa da. Toxikotasun txiki eta ertaineko aerosolekin lan egiteko erabili ohi dira. Osasun-langileei gelatik kanpo janztea gomendatzen zaie; eta FFP3 maskare iragazpen-eraginkortasuna % 98koa dute, eta espozio arriskua dagoenean, toxikotasun handiko aerosolen aurka erabiltzen dira. ■

# Musika Eskola: ez da isilik egoteko garaia

Alarma-egoera hasi zenetik itxita dago Eibarko J.B. Gisasola Musika Eskola. Baina ez daude isilik, etxetik dihardute etengabe lanean. Eskolaren ustez, oso garrantzitsua da ikasleei hezkuntza-esperientzia bat eskaintzen jarraitzea, musika ikasten eta musikarekin gozatzen jarraitu dezaten.

Euskal Herri osoko hezkuntza-zentroek egin zuten bezala, Eibarko Musika Eskolak ere ateak itxi behar izan zituen martxoaren 13an, COVID-19aren hedapena saihesteko. Etxeko txikiek eta gaztetxoek konfinamenduaren ondorioak bete-betean sumatu dituzte. Egun batetik bestera, lagunarteko jolasak eta topaketak, kaleko bueltak, eskolaz kanpoko jarduerak, ariketa fisikoa... alde batera utzi, eta etxean sartuta egon behar izan dute. Hilabete eta erdi pasa dute etxean irten gabe, eta txikienek, oraindik ere, murrizketa handiak dituzte kalera irteteko.

Egoera ikusita, Musika Eskolak telelanaren protokoloa aktibatzea erabaki zuen. Bai irakasleek, bai ikasleek asteak daramatzate klaseak online eman eta jasotzeko tresna informatikoekin lanean. Bakoitza bere etxetik.

Sare sozialen bidez Musika Eskolatik zabaldu dituzten bideoek aukera eman digute ikasleek egiten diharduten lana ikusteko. Azken hilabete hauetan ikasle eta irakasleek egin duten ahalegin handiaren emaitza dira, eskola-saioak egokituz, online edukia sortuz, jardueretarako formatu berriak bilatuz, komunikazio-bide berriak landuz, etab. Etxealdi honetan musika bidelagun izan dute Musika Eskolako ikasleek.

### Erabateko aldaketa

Aste hau berezia da Musika Eskolako familia handiarentzat, "aste honetan egitekoak ginen urte amaierako jaialdi-kontzertua Coliseo antzokian", diote. Egun berezia izaten da ikasle, irakasle eta egun horretan musikarekin gozatzera gerturatzen diren senide eta lagunentzat. "Pena da, eta horregatik aste hau aukeratu dugu bigarren bideoa zabaltzeko". Bideoaren bitartez hor jarraitzen dutela erakutsi nahi izan digute. Etxean, baina musikaren konpainiarekin.

Erabateko aldaketa izan da ikasle zein irakasleek bizi behar izan dutena. Iraide Ansorena perkusio irakasleak azaldu digunez, "ikasleak instrumentuekin aurrez aurre ikusten dituzu beti, eta bat-batean zure etxean zaude eta klaseei eutsi egin behar diezu, bakoitzak etxean dituen baliabideekin. Izugarrizko aldaketa izan da eta pixkanaka moldatzen joan gara".



**"Gehienek ikaragarri aprobetxatu dute. Denbora libre asko izan dute, eta musika zaletasunari gogor eutsi diote"**

### Ikasleak sukaldean, pijaman...

Aldaketa handia, "baina aldi berean polita" izan dela dio Iraidek. Ikasle eta irakasleen etxeak Musika Eskolaren zatitxo bat bihurtu dira. "Nik ikusten ditut ikasleak sukaldean, pijaman; perkusio ariketa batzuk bidali eta familia osoarekin egindako bideoak bidali dizkidate... Beste irakasle bati familia batek bideo bat egin zion bere urtebetetzean... Oso lotura handia sortu da ikasleekin eta euren familiekin. Ederra!".

Irakasleek rol bikoitza izan dute egun hauetan: batetik, ikasketa-prozesuarekin jarraitzea; eta, bestetik, teknologiaren bitartez erakustea egoera honetan ere ikasleez arduratzen direla. Kontuan hartu behar da, dena dela, ikasle eta familia guztien egoera ez dela berdina. "Kasu batzuetan familia egun osoan egon da ikaslearekin konfinatuta, eta aprobetxatu dute instrumentua jotzeko. Beste familia batzuen kasuan, aldiz, euren lana seme-alaben zaintzarekin eta eskolako lanekin uztartu behar izan dute". Beraz, denek ezin izan dute ikasturtea neurri berean jarraitu, eta "horren inguruko hausnarketa egiten dihardugu egun hauetan".

Orokorrean, baina, irakasleak harrituta daude ikasleek egin duten lanarekin, eta asko eskertzen dute gurasoen kolaborazioa. "Gehienek ikaragarri aprobetxatu dute. Denbora libre asko izan dute, eta musikazaletasunari gogor eutsi diote. Musikak denbora hori betetzeko balio izan die; ordu asko eman dituzte instrumentuak jotzen. Aste Santuko oporraldian ikasle batzuk denbora guztian bideoak bidaltzen aritu ziren!".





Musika Eskolako irakasleak etxetik aritu dira lanean, ikasleekin harremanetan.

Pandemiak eragin duen egoera berri honek alde onak ere badituela agerian geratu da. Musika Eskolaren kasuan, inoiz baino gehiago ibili dira elkarrekin harremanetan, eta elkarren arteko ezagutzan asko irabazi dute. Bestalde, telelana nola egin daitekeen ikasi dute, eta "etorkizunean gertatu daitekeenaren aurrean prestatzen joan gara".

### Sentimendu baikorrak

Musikaren sektoreak kalte handiak jasan baditu ere, artista ospetsuek, profesional anonimoek edo zaleek gure kale hutsak eta sare sozialak pentagramaren boterearekin girotu dituzte. Eta etxe barruko musika-saioak baikortasun-, elkartasun- eta arte-iturri izan dira konfinamenduan.

Musikak izan duen garrantzia azpimarratu nahi du Iraidek. Balioa eman zaiola uste du. "Mundu guztian musika oso laguntzaile potentea izan da. Jendea konektatzeko balio izan du. Dena izan da musika. Kaleko isiltasuna arintzeko, musika! Eta musika ikasten duten ume, gazte eta helduak hortaz ere konturatu dira. Egun hauetan musikak oso sentimentu baikorrak eragin dituela ikusi dut, eta onura asko atera dituzte".

Zabaldu dituzten bideoak ikasleek musikarekin daukaten sintonia horren isla dira. Etxeko sukaldean, egongelan, logelan, terrazan... grabatutako bideoak dira; guztira, 160 inguru bidali dituzte, eta horiek bildu, ikusi eta editatzeaz arduratu da Iraide, "egiten ari diren lana erakutsi nahi genuelako".

**"Aste hauetan mundu guztian musika oso laguntzaile potentea izan da. Dena izan da musika!"**

### Matrikulazioa laster

Aurtengo ikasturtea desberdina izan da, eta datorren ikasturteko matrikulazioa ere desberdina izango dela aurreratu digute. "Emailez egin ahal izango da ekainaren 1etik aurrera, Pegorara joan barik". Informazioa eskatzeko edo zalantzak argitzeko jbgmusikaeskola@gmail.com helbidera idatzi daiteke, edo 688 675 605 telefono zenbakira deitu.

Irakasleak desiatzen daude ikasgeletara bueltatzeko eta "elkarrekin musikaz gozatzeko". Etxetik musika ikasi ahal dela ikusi badute ere, "ez da berdina". Bitartean, etxean ikasten jarraitzen dute ikasleek. Animo denoi, eta zorionak egiten ari zareten lanagatik!







Leire Narbaiza

# Bizigarrixa eta danondako

Behin bakarrik juan naiz pasiatzera arratsaldeko 8retan. Txarto datorkit ordutegixa, baiña ez da horregaittik; urten neban egunian agobixau egin nintzan hainbeste jende ikusitta, automaten moduan mobitzen, leku barik ganoraz ibiltzeko. Aurretik pentsatzen nebana –eta askotan aittatutakua– indartu dau esperientzia horrek: Eibarren berdeguniak, parkiak eta espazio zabalak bihar dittugu, bankodunak eta kerizpia dakenak, lehenbailehen.

**“Espaloiak zabaltzia be badago asmuen artian. Ederto. Beti be oiñezkuen mesedietan, ez tabernetako mahaiz betetzeko, oin arte moduan”**

Ikusi dot partido politiko batzuek ibiltzeko tokixak egittia proposatu dabela. Ondo. Baiña egoteko lekuak be bihar dittugu, herrixa disfrutatzeko. Automobillak kentzia be aittatu dabe. Ederki. Baiña ez deilla izan zentrotik kotxiak desagertzia, eta auzuetara eruatia problemia. Autuak apartatzeko plan haundi eta anbizioz betia egin bihar da, kontuan hartuta eibartar askok kotxia biharrera juateko erabiltzen dabela, ezinbestian. Plan horrek garraio publikua indartu biharko leuke, garaje merkiak eraiki, mobilidade arazua dakeneri gauzak erreztu... ostantzian, aberatsendako baiño ez da izango, herriguneko garajien prezixuak –oin be karuak– gora egingo leukielako, diru gitxiago dakanen kaltetan.

Espaloiak zabaltzia be badago asmuen artian. Ederto. Beti be oiñezkuen mesedietan, ez tabernetako mahaiz betetzeko, oin arte moduan. Pasatzeko lekua izan deigun.

Leku hórrek ointxe hasi leikez egitten, dagozen orube hutsak aprobetxatuta, Arraguetan, esaterako. Berriro etxiak eraiki? Zertarako? 11 proiektu dagoz martxan, barren! Batek mendi magala jango dau, gaiñera! Txontan 200 etxe egin bihar dittue! 200! Zeiñendako? Etxe hutsez betetako herrixa da geuria. Auzo eta etxebizitzak barriztuta, nahikua litzake.

Nasaittasunez bizitzeko ametsa dakagu, Eibar bizigarri baten.



Iokin Elortza

# Kronika

Azken bi hilabeteetan bizi izan duguna aurretik kontatu izan baligute, txantxetan ari zirela edo pelikula txar baten gidoi bat entzuten ari ginela pentsatuko genuke. Guztiok.

Gutako bakoitzak oso modu pertsonalean bizi izan dugu egoera, ikaraz, eszeptiko, arduraz, arduragabe, etxean, edo, gure kasuan bezala, lanean. Hortaz baliatuz, gure ikuspegitik azken bi hilabeteak nolakoak izan diren azaltzea gustatuko litzaidake.

**Inprobisazioa**. Martxoaren 13an, barixakua, botika normal itxi eta hurrengo astelehenean alarma-egoeran ireki behar izan genuen. Hortik aurrera, inprobisazioa.

Ez genuen araurik, baliabiderik, ezta denborarik ere zetorrenari aurre egiteko. Gerora, betebeharrak etengabe heltzen hasi ziren, baina baita jende uholdea ere. Oso zaila zitzaigun betebehar guzti horiei aurre egitea, genuen lanari aurre egitea ere zaila zitzaigunean.

**“Omenaldia zuei guztioi, honetatik ere denak aterako garelako edo inor ez. Txalo bat”**

**Jendea**. Urduritasuna nagusi zen, zer gertatuko zen ez genekien, eta guztiok egin genituen badazpadako erosketak, botikan ere bai. Baldintza berrietara egokitzen hasi ginen, ilarak egin, distantziak errespetatu.

Botikan telefonoak etengabe jo eta jo. Produktu batzuk agortzen hasi. Beldurra zeharka somatu bada ere, jendearen jarrera bikaina izan da. Pazientzia mugagabea, gure egoerarekin ulerkor eta gure ezinekin oso eskuzabal. Eskerrik asko.

**Hidroalkoholikoa. Maskarak. Eskularruak.** Gure amets-gaiztoak. Ezin duzue imajinatu ere egin zenbat buruhauste eman dizkiguten produktu horiek. Normalean lan egiten ez dugun hornitzaileekin harremanetan jarri behar izan gara, eta diru asko ordaindu behar izan dugu aldez aurretik, egunetik egunera aldatzen joan den egoera bati aurre egiteko. Zoramena.

Gure lehentasuna produktu horiek zuen esku jartzea izan da eta, nahiz eta askotan produktu horien banaketa zaila izan den eta irabazirik gabe saldu izan ditugun, zuen eskura jarri ahal izateak guztiz merezi izan du.

**Etorkizuna**. Egoera oso gogorra izan da. Jende asko gaixotu da. Hil. Ezin dugu ahaztu.

Orain badirudi egoera hoberantz doala, hala izan dadila, eta joan gaitezen pixkanaka normaltasuna berreskuratzen. Bitartean, gure omenaldia egin nahi diegu hilabete hauetan hain gaizki pasa duten gaixo eta horien senideei, lanean jarraitu duten zerbitzuetako langileei, botiketako kide guztioi eta, nola ez, zuei guztioi, honetatik ere denak aterako garelako edo inor ez. Txalo bat.

# “Kezkan oso pozik nago, dantza nire pasioa bihurtu delako”

Miren Hazas Kezka Dantza Taldeko kidea da eta dantza-klaseak online eman ditu itxialdian. Etxean egon arren, dantza egiteko beharra izan du eta ez da geldirik egon. Bide batez, dantzaren mundura erakarri du bat edo beste. Horrez gain, dohain musikalak dituela erakutsi zuen anaia Jokinekin, Jaixak Herrixak Herrixandakok eskainitako jaialdian bikote ederra osatu zuten-eta.



**# MIREN HAZAS**
Dantzaria **#**

**Nola moldatu zara dantza-klaseak online emateko?**
Oso arraroa izan da. Azken batean, ez nuen ikusten klasea nork jasotzen zuen edo nor nuen aurrean. Kezkan umeei dantza-klaseak ematera ohituta nago eta bat-bateko kontua da. Zuzenean zerbait esplikatzen duzunean ez duzu mozketarik egin behar, baina bideo hauek grabatutakoak izan dira eta, gauzak zuzen azaldu behar nituenez, mozten eta editatzen joan behar izan naiz. Mozoloa ematen nuen kamerari berbetan (barreak).

**Momentuan ez zenuen ikusleen erantzuna ikusten, baina nolako harrera izan dute bideoek?**
Badakit inguruko jendeak ez duela guzti-guztia ikusi, hau da, ez direla bideoekin dantza ikasten jarri, baina koadrilako batek esan dit amak bideoak ikusi nahi zituela dantza egiten ikasteko. Polita da jendea dantzan egitera animatzea.

**Nolako dantza-saioak izan dira?**
Hasteko, dantzaren pausoak esplikatzen ditut, poliki-poliki. Eta gero, musikarekin dantza egiten dut.

**Gutxienez, itxialdiak gauza berriak probatzeko aukera eman digu?**
Bai. Gainera, orain arte egin gabe genituen bideoak egiteko aprobetxatu dugu.

**Nola bizi izan duzue itxialdia dantzariek?**
Ez dugu etxean dantzatzeko ohiturarik, baina etxean dantzatu behar izan dugu, bestela dantza egin barik geratuko ginateke. Gehiago kostatzen da etxean dantza egitea, kirola egitea baino.

**Zergatik?**
Etxea ez da plaza bat eta, gainera, normalean etxean ez dago zurekin dantza egingo duen inor. Beraz, bakarrik egingo duzu? Arraroa da. Euskal dantza egiteko konpainia behar da. Hala ere, gorputzak dantza egitea eskatzen zidan eta, hala-nola egin arren, dantza egin behar izan dut.

**Itxialdian Kezkakoek martxan jarraitu duzue?**
Online batzen gara entseguak egiteko (lehenengo astean birritan; eta gero, behin), errutina bati eusteko eta aurrera egiteko. Jai eta emanaldi askoren sasoia da eta gauza asko bertan behera geratu dira. Ea zer egin dezakegun hemendik aurrera, baina uste dut 2021era arte ez garela dantza-gelan sartuko.

**Dantza egiteko zaila izango da urruntze sozialari eustea.**
Denbora guztian ezpata-dantza egiten ez badugu, bai (barreak).

**Noiz hasi zinen dantzan?**
Txikitatik nabil Kezkan. Oso pozik nago, dantza nire pasioa bihurtu delako. Gustora egiten dut dantza, hor askatzen dut barruan dudan guztia.

**Dantza egiteaz gain, musika da zure beste pasio bat?**
Bai, baina gutxiago. Anaiak eta biok etxean ikasi dugu gitarra, pianoa, ukelelea... jotzen.






# osasun gida

## Dentistak

**arat** Hortz Klinika
"Hortz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"
T. 943 20 18 51
UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

**bista eder**
Esku onetan egotearen ziurtasuna.
clínica dental · hortz klinika
Deitu | 943 70 00 82
bista eder, 13
www.bistaeder.es

**EIBAR** HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL
MAITANE G. IÑIGUEZ
Zerbitzu guztiak klinika berberan
San Agustin, 4 behea ezk.
943 537 076 - 688 884 808

**Pedro Etxeberria Gisasola DENTISTA**
EGUNERO
Calbeton 19 - 3. ezk.
Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI** Hortz-Klinika
Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia
Errebal, 9 - 1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

hortz-klinika
**B. IZAGIRRE**
clínica dental
EGUNERO
Untzaga, 5 - 4.
Tel. 943 70 23 85

**IRAZABAL** clínica dental
Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**
ERREHABILITAZIOA
- Fisioterapia / Errekuperazio funtzionala
- Min-Unitatea
- Inkontinentzia urinarioak
- Kirol medikuntza
- Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika

**abontza** clínica estética
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
KIRURGIA ESTETIKOA
Egiguren, 6 943 206 044

**Javier Martin doktorea**
Aurpegi-masailetako Kirurgilaria
AURPEGIA GAZTETZEKO KIRURGIA
AURPEGIKO KIRURGIA ESTETIKOA
679 334 371
943 120 200
KONTSULTAK: Centro Médico Eibar
KIRURGIAK: Policlínica Gipuzkoa

## Fisioterapeutak

**ANE MENDIA**
FISIOTERAPIA ZENTRUA
Arragueta, 20

## Ginekologia

Dra. Laura Martinez
Dr. Alejandro Recas
**GINECOLOGÍA EIBAR**
- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65
San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

# osasun gida

## Logopedak

**AHOTS-LAN**
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA
Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com
Diagnostikoa eta tratamendua
Degluzio atipikoa · Disfonia · Ikaste-arazoak
TDAH · Berba arazoak · TEA · Dislexia
LEHENENGO KONTSULTA DOAN

## Okulistak

**Oftalmologoak**
Centro de Oftalmología Avanzada
**JOSE ALBERDI**
www.oftalberdi.com
San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

**Recalde**
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika
- Miopia ebakuntzak (femtosegundoko laserrarekin)

Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

**ELENA AIZPUN**
PODOLOGOA
kolegiatu zenbakia
T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Bidebarrieta, 48
**EIBAR**
943 203050
Erdiko kale 54
**ARRASATE**
943 799746
**PODOLOGOA**
Erdiko klinika
Nerea Arregi
Rosario Rodriguez
Amagoia Zubizarreta

**PODOLOGOA**
Maider Lopez Etxeberria
Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88
65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO
Iñaki Rivero Zabaleta
Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)
Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA
Coro Ortiz de Urbina
- Master Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA
943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B,1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

**Lorena Izaguirre Garcia**
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA
Errebal, 15 - 1. ezk. ..............EIBAR
Zuberoa, 4......................ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

**Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa**
Oscar Mondragon Lili
Urkizu, 13 - behea
943206823 eta 686859023

## Psikoterapia

**FUB**
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR
FERNANDO URIZAR BARANDIARAN
Medikuntza Psikiatrikoa
Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04
Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06
furizar1@yahoo.com



Alto Trujilloko familia batzuei elikagaiak banatu zaizkie gose-larrialdi egoeraren aurrean. EGOAIZIA

# Laguntza-deia Perutik eta Saharatik

Egoaiziak eta Eibar-Sahara elkarteak ez dute mundu mailako osasun-larrialdirik behar izan elkartasunaren bidea hartzeko. Hamarkadak daramatzate gutxien dutenei bizimodu hobeagoa eskaintzeko lan egiten eta parean jartzen zaizkien oztopoak gainditzen. Koronabirusa beste oztopo bat gehiago da. Oztopo handia, baina guztion elkartasunarekin gaindituko duguna.

Marisabel Albizuk Peruko Alto Trujillon egiten du lan Egoaiziaren eskutik, 'Fe y Alegria' zentroan, hain zuzen ere. Urtebete darama han eta ondo ezagutzen ditu Peruko gizartea bera eta han dituzten beharrak. Koronabirusak hankaz gora laga du herrialde osoa, askorentzat lehendik larria zen egoera are gehiago larriagotuz.

Martxoaren 6an identifikatu zen lehen koronabirus kasua Perun eta 16an larrialdi-egoera ezarri zuen Gobernuak. Bi egun geroago, hainbat herritarrek neurriak errespetatzen ez zituztela ikusita (11.000 lagun atxilotu zituzten La Libertad departamentuan), etxeratze-agindua ezarri zuen. Hala ere, ez da nahikoa izan birusaren hedapena saihesteko eta ondorioak latzak izan dira.

Pandemiak gehien kaltetu duen Hego Amerikako bigarren herrialdea da Peru, Brasilen atzetik. 3.000 lagun inguru hil dira COVID-19aren ondorioz, eta 100.000 lagun inguru kutsatu. Bestalde, gaixotasuna gainditu edo ekidin dutenek etorkizun zaila dute aurretik.

**"Peruko biztanle askok ia modu biolentoan bizi dute egoera hau, marjinazio- eta bazterketa-egoeran bizi direlako"**

**Gose-larrialdi egoeran**

Gizarte eta ekonomia mailan egoera gero eta larriagoa dela dio Albizuk. Biztanleen %70 aktibitate informalak eginez bizi da. Hau da, saltzaile ibiltariak dira batez ere, eta egunean behar dutena irabazten dute. Koarentena ezarri zenean jendea etxean geratu behar izan zen, eta, ondorioz, biztanleen %70 irabazirik gabe geratu zen. Ez badira saltzera irteten ez dute jatekorik, eta egoera horretan daude bi hilabete baino gehiago.





Saharako umeak ezin izango dira Eibarrera etorri uda honetan.

Peru gose-larrialdi egoeran dago. Familia batzuei elikagaiak banatu dizkietela aipatu du Albizuk, eta hegazti-enpresa batek, adibidez, oilaskoa banatu du Alto Trujillon. Bertako biztanleek modu "ia biolentoan" bizi dute egoera hau Albizuren ustez, "marjinazio- eta bazterketa-egoerak bizi direlako", eta 102 familiari laguntza eskaintzeko kanpaina bat jarri du martxan Egoaiziak.

Erakunde eibartarrak bi kontu korronte laga ditu lagundu nahi duen jendearen eskura: 3035 0023 93 0231187017 (Laboral Kutxa) eta 1550 0001 2800 0074 9226 (Fiare Banca Etica).

**Saharako errefuxiatuen egoera**

Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduan dauden 200.000 sahararrek etengabeko salbuespen-egoera bizi dute. Euren herrialdetik kanporatuak eta bizi-baldintza kaskarrekin, orain koronabirusaren mehatxuari egin behar diote aurre.

Aljeriak ospitale mugikor bat jarri du kanpamenduan, "baina oso txikia da", Eibar-Sahara elkarteko Edurne Uzkudunek dioenez: "30 ohe inguru bakarrik ditu eta ez dituzte hemen ditugun makinak eta arnasgailuak". Hala ere, kanpamenduak itxita daude, etxeratze agindua ezarri da eta momentuz ez dago koronabirus kasurik.

Koronabirusa iritsi ez den arren, Saharako umeak ezin izango dira Euskal Herrira etorri udan. "Haur guztiak triste eta haserre daude", dio Uzkudunek. Eurentzat ez da oporraldi soila, beste mundu bat ezagutzea da, momentu batez errefuxiatu-kanpamenduan bizi den egoera gogorretik aldentzea, eta batzuentzat, osasun-arazoei aurre egiteko modu bakarra: "Gure etxera etortzen den ume batek, adibidez, migraina gogorra du eta jarraitu beharreko tratamendua ezartzen zaio hona etortzen denean. Beste ume batzuk okulistara edo otorrinolaringologora joaten dira, eta beste batzuek giltzurrunetako arazoak dituzte". Beraz, kanpamenduetara mediku batzuk bidaltzeko kanpaina jarri nahi dute martxan Eibar-Saharakoek.

**"Udan etortzen diren Saharako 300 umeentzat maleta bat prestatu nahi dugu beharrezkoak diren gauzekin"**

Mugak itxita daudenez, sahararrek ezin dute eurentzat berebizikoa den laguntzarik jaso. "Ez dute janaririk, ez urik, ez ezer. Bidoiak urez betetzen dizkieten kamioiak joaten dira 15 egunetik behin, baina ura Tindufetik iristen denez eta dena itxita dagoenez, ur barik daude", dio Uzkudunek.

Eibar-Sahara, Ilargi Gorria eta beste hainbat elkarte dirua biltzen ari dira errefuxiatuei elikagaiak erosteko, eta kamioi edo autobus baten bila dabiltza bildutako guztia Tindufera eramateko. "Udan etortzen diren 300 umeentzat maleta bat prestatu nahi dugu, beharrezkoak diren gauzekin: sendagaiak, arropak...". ■








## Urbat waterpolo taldeak, liga amaitu barik baina gorenean

>>> Senior mailako talde biek lehiaketa bertan behera geratu zen unean sailkapenean zeuden tokietan postuetan amaitu dute liga. Horrek ekarri du gizonezkoen taldeak bigarren urtez jarraian Euskal Herriko liga irabaztea eta emakumezkoenak bigarren postuan amaitzea. Gizonezkoen Urbat Urkotronik taldeak partidu bakarra zuen galduta eta hiru puntuko aldea ateratzen zion CW 9802 taldeari; emakumezkoen Urbat, bestalde, Bidasoa XXI liderarengandik hiru puntura zegoen sailkatuta. Nafarroako eta Euskadiko Igeriketa Federazioek hartutako neurriarekin, estatu mailako kategorietan sartzeko txapelketetan hartu ahal izango dute parte. Jubenil, kadete eta infantil maileko liga txapelketak jokatuko ez balira moduan geratuko dira aurten.



## Pedro Mari Arroitajauregiri eta Jose Avalosi agur

>>> Hilabete honetan laga gaituzte herriko kirol arloari lotutako aipatutako biek. Pedro Mari Arroitajauregi 3an hil zen, 90 urterekin, eta Jose Avalos bi egun geroago, 81ekin (argazkian). Lehenengoa hamalau urtetan J.D. Arrateko presidentea izandakoa genuen eta talde horretan foballean jardundakoa, atleta moduan ibilbide bikaina egiteaz aparte. Avalos, bestalde, pilotari lotuta egon zen eta, Pedro Mari Iriondoren taldeko epaile izan eta gero, Astelena frontoiko kantxeroa izan zen hainbat urtetan, Udalak frontoia hartu zuen arte.



## San Juan Sari Nagusia ere bertan behera laga behar izan dute

>>> Ekainaren 14an jokatu behar zen Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen junior mailako probak ere paso egin beharko du aurten, eta lasterketaren 85. edizioa 2021ean egingo da. Gure herriko klubaren egutegiko azken proba izan behar zenak aurretik jokatu behar ziren bidetik jo behar izan du eta datorren urterako atzeratu berau jokatzea.

Otsailaren 23an jokatutako junior mailako Udaberri Saria izan da aurten jokatu ahal izan duten proba bakarra. Apirilaren 5ean jokatzekoa zen Valenciaga Oroitzarrea (afizionatuen mailako estatuko proba garrantzitsuena, elite eta 23 urtetik azpiko Espainiako Kopako lasterketa) momentuz urriaren 20rako dago iragarrita. Ikusi beharko da, dena dela, ordurako txirrindularitza munduak zelako bidea hartuko duen, profesional mailako lasterketen egutegitik hasita.

## Amaitu gabeko Foball zaletuen KirolBet Liga Bar Txokorentzat

>>> Unben jokatzen den foball-zaletuen txapelketak ere bere ateak itxi ditu aurtengo denboraldian, liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, pandemiak sortutako egoerak hala behartuta. Martxoaren erdialde hartan lider zegoen Bar Txoko izango da txapeldun (51 punturekin), Garajes Garcia (49) eta Azkena Adahiren (36) aurretik. Jokoan izaten diren bestelako sariak horrela geratu dira edizio honetan: Txokoko Markel Lizarbe goleatzaile nagusia izan da, 23 golekin, eta Jokin Belategi gol gutxien jaso dituen atezaina. Kiroltasuneko saria, bestalde, Chic taldeak irabazi du.

## Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketari ere agur esan behar izan diote

>>> COVID-19ak eragindako egoerak behartuta, Gipuzkoako 51. Hiru Txirlo bola joko txapelketa bertan behera lagatzea erabaki dute. Azkoitiko Floreaga bolatokian jokatutako hasierako jardunaldia besterik ez da izan aurten. Hori dela-eta, antolatzaileek Euskal Herriko 31. txapelketarako "zerbait berezia prestatzen ahaleginduko" direla aurreratu dute.



## Emakumezkoen taldeek historia egin dute

>>> Errugbiko Avia Eibarrek Ohorezko Mailan jokatuko duen probintziako lehen taldea izango da eta foballeko Eibar talde nagusia Lehen Mailara iritsi da azkenik. Ondo merezitako saria izan da bien kasuan, lorpen horiek eskuratzeko bide ezinhobean zeudelako lehiaketak bertan behera laga zirenean. Kirol ez-profesionaleko lehiaketa guztiak bertan behera lagatzea erabaki zuten Federazioek eta gehien-gehienek sailkapenak ordura arte zihoenari jarraitzea erabaki dute; profesionalen kasua beste kontu bat da eta hor, hainbeste diru tarteko, ahaleginak eta bi dihardute egiten lehiaketekin jarraitzeko. Batez ere, foballean (hor dabiltza Eibar FT-ko gizonezkoen lehen taldekoek berriro jokatzeari begirako prozesuan) eta saskibaloian.



Errugbi taldeak denboraldiko partidu guztiak irabazi ditu.

Emakumezkoen foballeko Eibar taldea bigarren zegoen sailkapenean koronabirusaren pandemiak liga eten zuenean, Athletic B liderrarengandik bi puntura. Zuri-gorriak Lehen Mailan taldea dutenez ezin dira igo, eta eibartarrek jaso dute saria eta bigarrenez ariko dira maila gorenean. Eibartarrek ondo bideratuta zuten igoera postua, iaz ere denboraldi amaiera arte aurkari zuzenak izan zituzten Alaves eta Osasuna bost puntura zeudela. Iker Dorronsoro entrenatzaile izan duen taldean Eibarko bi jokalarik (Nerea Gantxegi eta Marta Lopez de Gereñu atzelariak) eta Ermuko beste bik (Alaitz Seoane atzelaria eta Malen Olañeta erdilaria) jokatu dute denboraldi honetan. Hurrengoan, Lehen Mailan, Bartzelona azken txapelduna, Atletico de Madrid azpitxapelduna, Real Madrid talde berria, Athletic eta Reala izango dituzte aurrez-aurre.

Cristina Guntin galiziarrak zuzentzen duen Avia Eibarrek, bestalde, denboraldi ezin bikainagoa egin du, partidurik galtzea zer den jakin gabe. Azken ginga zelaian ipintzeak denboraldia borobilduko lukeen arren, horren ezean aurkari guztiak baino talde indartsuagoa zutela erakutsi dute eibartarrek. Herriko jokalari askorekin talde ezin indartsuagoa osatu eta gero, Babalwa Latsha Hegoafrikako selekzioko kapitainak eta Zeelanda Berritik etorritako Kiritapuk eta Haronok azken ukitua eman diote prestatzaileak osatutako taldeari.

Gipuzkoa eta Euskadiko selekzioekin jokatzea ohiko bihurtu duten jokalariekin batera, badira Espainiakoarekin ere parte hartu dutenak, euren artean taldeko erreferente nagusia eta kapitaina den Amaiur Mayo. Gauden egoeran egonda, oraindik ez dakite datorren denboraldiari zelan helduko dioten: maila berrian izateaz aparte, lehiaketa zelan antolatuko den, atzerritarrek aukera izango duten hemen jarraitzeko... Baina kementsu eta gogo biziz dira.



Eibar FT bigarrenez izango da maila gorenean.





# Deskonfinamenduaren 2. fasera saltoa emateko prest

Astelehenean pasatu ziren Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba larrialdi-fasetik osasun-zaintzara, Iñigo Urkulluren Gobernuaren ezohiko Gobernu Kontseiluak hala erabaki eta gero. Espainia mailako 2. fasearen behin betiko baldintzak zeintzuk izango diren ezagutu bitartean, Eusko Jaurlaritzak astelehenean bertan bidali zion bere proposamena Osasun Ministerioari, astelehenean, maiatzaren 25ean, hasiko den bigarren faserako egokiak iruditzen zaizkion ezaugarriak azalduta. Sanchezen Gobernuak, bestetik, alarma egoera ekainaren 7ra arte luzatu du.

Bigarren faseak hainbat aldaketa ekarriko dizkigu: kirola egiteko eta paseoak emateko ordutegiak malgutu egingo dituzte, eta jatetxeek, merkataritza guneek zein kirol instalazioek ateak zabaldu ahal izango dituzte. Helduek ia egun osoan egin ahal izango dute kirola, 70 urtetik gorakoentzat gordetako tarteetan (10:00-12:00 eta 19:00-20:00) izan ezik. Hau da, 06:00etatik 10:00etara, 12:00etatik 19:00etara eta 20:00etatik 23:00etara atera ahal izango dira herritarrak kalera kirola egitera edo paseatzera, besteak beste.

Jaurlaritzaren proposamenari jarraituz, kultura jarduerak ekainaren 1etik aurrera hasiko dira programatzen. Espazio itxietan (museoak, kultur etxeak, antzokiak, zinemak...) edukiera % 50ekoa izango da. Eta espazio irekietan 500 lagunentzako edukiera izango da, gehienez. Publikoa eserita egongo da, eta distantziak zein gainerako segurtasun-neurriak bermatuko dira.

Ostalaritzan eta jatetxeen kasuan, % 50eko edukiera aurreikusi dute barrualdean eta, terrazetan, mahaien artean bi metroko distantzia bermatzea. Zerbitzua beti emango da bezeroa eserita dagoela.

Denda eta merkataritza-guneetarako ere % 50eko edukiera aurreikusi dute.

Turismo aktiboa eta naturaturismoa (mendi-ibilaldiak), enpresa bitartekari bat erabiltzeko obligaziorik gabe zabaltzea proposatu dute. Etxebizitza eta beste espazio pribatuetan bilerak egiteko, berriz, azalpenak eman beharko dira.

Hezkuntzan, hasieratik esandakoari eutsiz, maiatzaren 25etik aurrera hezkuntza-jarduera presentziala hastea proposatu dute DBHko 4. mailako, Batxilergoko 1. eta 2. mailetako eta Lanbide Heziketako gradu guztietako 1. eta 2. mailetako ikasleentzat.

**Ordutegiak malgutu eta jatetxeak, merkatalguneak eta kirol instalazioak zabalduko dira**

Zahar-etxe eta zentro soziosanitarioetan bizi direnei bisitak egiten lagatzea ere dago jasota proposamenean, pertsona eta egun bakoitzeko bisita bat, gutxienez, bermatzeko gomendioa gehituta, "baina egoera baloratuz, eta pertsona bakoitzaren beharrak eta zentroko egoiliar guztien segurtasuna lehenetsiz".

Sarrera-probak eta azterketak egiteko azoka-esparru eta antzeko tokiak zabaltzearen alde agertu dira baita ere, "urruntze sozialeko neurriak errespetatuz"

Euskaltegiak, hizkuntza-eskolak eta antzeko beste formakuntza batzuk berriz martxan hasteko moduan daudela eriziten diote, ikasgeletan edukiera mugatuta, eta higiene zein urruntze sozialerako neurriak zainduz gero. Ildo berean, euskara-mailak frogatzeko azterketak egitea (HABE) proposatu dute.

### Erantzukizun indibiduala

Eusko Jaurlaritzaren arabera, "Euskadiko egoera epidemiologiko eta asistentziala ona da, zaintza eta kontrol neurriak hartzen ari dira". Hala ere, erantzukizun indibiduala eskatu diete herritarrei, "orain arte egindako lana ez alferrik galtzeko". ■



<<< **URTZI ANTXUSTEGI** • Garbibox >>>

# "Edonor etorri daiteke autoa desinfektatzera eta ez diogu ezer kobratuko"




El Corte Ingleseko parkingean dago Garbibox, P1 pisuan. Autoak goitik behera garbitzen dituzte eta, koronabirusa gure artean dugun honetan, autoak doan desinfektatzen dituzte. Eibartar guztiei ireki dizkie ateak, eta ez dago zertan autoa garbitu desinfektatzeko. 60 egunez itxita egon ondoren, gogo handiz ekin diote ohiko jardunari eta, autoak garbi uzteaz gain, elkartasun-mezua helarazi nahi diote gizarteari. Txanda hartzeko hitzordua eskatu behar da, 688 64 98 37 telefonora deituta.

**Geldirik egon ondoren, berriz ekingo diozue autoak garbitzeko zerbitzuari. Gogotsu?**

Bai. Azken batean, denbora asko egon gara geldirik eta gogorra da berriz hastea. Gainera, oraindik askok ez dakite zabalik gaudela.

**Zein neurri hartu dituzue egoera berriak eskatzen dituen baldintza berezietara egokitzeko?**

Likido berriak ekarri ditugu autoak desinfektatzeko. Hasieran esaten zuten ozonoak desinfektatzeko balio izan zezakeela, baina arriskutsua dela konturatu gara. Auto barruko tubo guztiak eta aire egokitua desinfektatzen ditugu, denbora guztian autoa martxan lagata.

**Neurri bereziak hartzea oztopo da zuen lanarentzat?**

Lehen auto bat garbitzen ematen genuen denbora baino ordu erdi gehiago behar dugu orain. Prezio berean, denbora gehiago eskaintzen diogu garbiketari. Hala ere, autoen desinfekzioa bezero guztiei eskaintzen diegun zerbitzua da, euren segurtasunarengatik eta geureagatik, egoera honen aurrean guztion artean zaindu behar dugulako elkar.

**Lan egiteko orduan nolako neurriak hartzen dituzue?**

Bezeroen eta geure arteko distantzia errespetatzen dugu denbora guztian. Adibidez, bezeroen autoen giltzak hartzeko, autoaren kapotaren edo mahaiaren gainean jartzeko eskatzen diegu. Gero, ezer egin aurretik, bolantea, abiadura-kaxa eta eskulekuak desinfektatzen ditugu.

**"Gure artean elkar zaindu behar dugula uste dugu"**

**Oztopoak oztopo, lanera bueltatu zarete. Nola moldatu zarete itxita egon den bitartean?**

60 egun inguru egon da itxita eta oso arraroa izan da. El Corte Inglesa itxita egon denez, ezin izan dugu zerbitzurik eskaini, nahiz eta guk, berez, lan egin ahal genuen. Hala ere, lagun batek bere garajea utzi digu bezero batzuei zerbitzua emateko. Normalean baino askoz ere auto gutxiago izan dira, baina lan pixka bat egiteko aukera izan dugu, eta eskerrak eman behar dizkiegu bezeroei.

**Galerarik izan duzue egoera horretan?**

ABEEE ireki behar izan dugu eta langileak urduri daude lanerako itzulera nolakoa izango den jakin nahian.

**Garbitasun-neurri zorrotzak hartu behar dira orain. Autoak garbitzeko eskaera igo egin da?**

Astelehenean hasiko gara topera eta orduan ikusiko dugu ea garbitasunaren kontuagatik eskaera igotzen den. Autoan jende ezberdina badabil, garrantzitsua da autoa desinfektatzea. Edonor etorri daiteke autoa desinfektatzera eta ez diogu ezer kobratuko. Kontu hau ez dugu negozio moduan ikusten. Berdin dio gero autoa garbitzen ez badu. Gure artean elkar zaindu behar dugula uste dugu eta neurri honekin laguntza eskaini ahal badugu, primeran. Egoera honetan elkarrekin egin beharko dugu aurrera eta gure egitasmoak zerbaiterako balio badu, primeran.

**Bestela, nolako zerbitzuak eskaintzen dituzue?**

Autoak barrutik eta kanpotik garbitzen ditugu, goitik behera.






# Etxealdia arintzeko zenbait proposamen guraso berbalagunentzat

>>> Orain urruti xamar ikusten dugu, baina orain dela gutxira arte etxeko txikienen konfinamendua % 100ekoa zen, ezin zuten etxetik irten, ezertarako. Orain badute kalera irteteko tarte bat, ez da asko baina bada zerbait. Konfinamendu-hasieran batez ere, eguneko orduak oso luze egiten zitzaizkien, eta ...eta kitto! Euskara Elkartea ordu luze haiek arintzeko hainbat proposamen egiten hasi zitzaien guraso berbalagunei eta haien familiei. Lehen egunetan etxean egiten zihardutena kontatu ziguten: gimnasia balkoian, 20:00etako txaloak, errezetak, eskulanak... Horren ondotik etorri ziren "aste tematikoak".

Konfinamendu-hasieran **"Irinaren erronka"** izeneko bideo sorta ederra bidali zigun Cobos-Fernandez-Vega-Lizarralde familiak. Ea nor ausartago, muturra busti, irinean sartu eta aurpegiak zikindu zituzten etxeko heldu eta txikiek. Eta handik egun batzuetara familia arteko pintxo-lehiaketa antolatu zuten, bakoitza bere etxean, jakina!

Horren ostean etorri zen **"Magiaren Astea"**. Magia-trikimailuak eskatu genizkizuen, eta berehala iritsi ziren truko pila bat. Irai, Ametz, Elene, Maialen, Andoni, Oier eta Intza aztiek aho-zabalik utzi gintuzten euren trikimailuekin.

Zenbatek aprobetxatu ote dituzten konfinamendu-orduak **sukaldean** jarduteko? Guraso berbalagunek ere orduak eman dituzte su artean. Arantzak, esaterako, pizza eta ogia egin ditu Maitena eta Marina alaben laguntzarekin, eta aitatxok egindako bideo zoragarria helarazi ziguten. Eskerrik asko, familia! Lizarraldetarrak ere ez dira atzean gelditu eta berenjena betea eta olo-gailetak nola egin erakutsi digute.

Asteartetan dute hitzordua guraso berbalagunen familiek **bingoan jokatzeko**. Jitsi Meet programaren bidez elkartzen dira, eta ordubetez pare bat partida jokatzen dituzte. Irabazleek, hau da, lerroa osatu eta Bingo egiten dutenek, ...eta kitto!-ren kamisetak eta liburuak jasotzen dituzte opari moduan.

Bideo guztiak ikusgai dituzue www.etakitto.eus webgunean.




# Illunabarrian elikaduraz berbetan

>>> Illunabarrian programaren helburua euskarazko kalitatezko ekimen soziokulturalak eskaintzea da. Askotariko jarduerak egiten dira programa horren barruan: dastaketak, hitzaldiak, tailerrak..., eta parte-hartzea irekia da herritar guztientzat.

Bizi dugun egoera honetan jarduera horiek ezin direnez aurrez aurre egin, teknologiak eskaintzen dizkigun baliabideak aprobetxatuta, modu birtualean elkartu ziren dozena bat lagun Mireia Alberdi nutrizionistarekin aurreko martitzenean. Bi ordu luzez jardun zuten elikadura osasungarriaren gainean berbetan, eta adituak argitu zituen parte-hartzaileen kezkak eta zalantzak.

Egunerokotasuna kaosa bihurtu ez dadin elikadura nola planifikatu azaldu zien nutrizionistak, eta bakoitzaren egoeraren araberako gomendioak ere eman zizkien. Illunabarrian beste saio bat egingo da uda aurretik, baina baliteke presentziala ez izatea, osasun neurriek hala gomendatzen badute.



# COVID-19: merkatari eta ostalarientzat kartelak

>>> Azken egunotan bizi dugun deskonfinamenduarekin batera, jarduera ekonomikoa berrabiarazten hasi da pixkanaka, eta egoera berriarekin lotuta eguneroko bihurtu zaizkigu hainbat esamolde, batez ere denda eta tabernetan. Gero eta kartel eta ohar gehiago ikusten ditugu establezimenduetan, barruan zein kanpoan. Herrian bertoko merkataritza suspertzeko ahaleginean gauden honetan, bezeroen gustuak eta premiak ere kontuan hartu behar ditugu, hain zuzen produktuak, eskaintzak eta, nola ez, hizkuntza ere bai. Hori dela-eta, ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Euskeraz Primeran! ekimenaren bitartez, hainbat kartel prestatu ditu, eredu gisa, tabernariek eta dendariek euren establezimenduetan erabili ditzaten.

Elkarteko teknikariek adierazi dutenez, "adibide edo eredu batzuk besterik ez dira; euren premietara egokituko gara, eta, kartel horiez gain, beste ohar batzuk edo itzulpenen bat behar izanez gero, ...eta kitto! Euskara Elkartera jo dezakete, doan eskainiko diegu zerbitzu hori". Egoera bera bezala oharrak ere aldatuz doaz: establezimendu barruan egon daitekeen pertsona kopurua, hitzordua hartu behar den ala ez..., "eta gu ere egoera horretara moldatzen joango gara kartelak edo oharrak eskaintzeko orduan".

Sektorean egiten diharduten esfortzua ikusita, eta euskera saltzeko hain aukera ona izanda, ez genuke nahi hizkuntzaren kontua alde batera gelditzea", diote elkartetik. Izan ere, une honetan oso garrantzitsua da Eibarren bertan kontsumitzea, eta "bezeroak bertan gelditzeko bertoko hizkuntza erabiltzea".

**Kartelak etakitto.eus-en**

Euskeraz Primeran!-en kartelak deskargatzeko sartu www.etakitto.eus web-orrian eta bertan aurkituko dituzue. Baina bestelako testu, itzulpen edo oharrik behar izanez gero, idatzi elkartea@etakitto.eus helbidera.













# ...eta kitto! Euskara Elkarteak datorren urtera arte atzeratu du Urteko Batzar Nagusia

Koronabirusak eragindako alarma-egoera dela-eta, martxoaren 26an egitekoa zen Urteko Batzar Nagusia 2021eko martxoan egitea erabaki du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. COVID-19 ari aurre egiteko eremu sozio-ekonomikoan premiazko neurri osagarriak hartzeko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak agindutakoari jarraituz hartu du erabakia elkarteak eta, beraz, datorren urtean ohiko batzarraren aurretik deituko du 2020koa ez ohiko moduan.

Bestetik, orain arte zuzendaritza-taldea osatzen zuten kideek beste urtebetez jarraitzeko asmoa agertu dute. Ondorengoak dira: **Ekaitz Juaristi** (presidentea), **Moises Gonzalez** (presidenteordea), **Maider Aranberri** (idazkaria), **Marisol Uriarte** (diruzaina) eta **Ana Aizpurua, Leire Alberdi, Julian Fernandez, Gorka Guenaga, Ane Lizarralde, Jon Mardaras, Anartz Mitxelena** eta **Iraia Muñoa** (bokalak).

Bazkide-kuotei dagokienez, orain artekoei eutsiko zaie, eta ekaineko lehen astean pasatuko dira. Horrela gelditu̇ko dira:

Lanean daudenek: **45 euro**; langabetu, ikasle, jubilatu eta etxekoandreek: **15 euro**; 16 urtetik beherakoek: **5 euro.**



**"Datorren urteko martxoan egingo da aurtengo batzarra"**

**>>>>>>>>>>>>>>>>>>>>> VICKY ROJAS ETA DALILA CABRERA • *VORAGINE***



# “Aurrera egiteko gogoz gaude, finantzazioarekin edo gabe”

Vicky Rojasek eta Dalila Cabrerak Voragine websaila estreinatuko dute gaur 18.00etan (voraginewebserie.com-en eta YouTuben), eta 16:00retan aktoreek eta zuzendariek solasaldia egingo dute zuzenean Instagramen. Filmazioa Bilbon eta Eibarren egin zen, eta euskarak berebiziko garrantzia duela aurreratu digute.

**Urduri zaudete gaurko estreinaldiari begira?**
DALILA: Urduri eta ilusioz gaude. Urte hauetan egin dugun lana jendeak ikusteko gogo handiz.
**Uztailean egon ginen zuekin, grabazioa hasi aurretik. Nola joan zen filmazioa?**
DALILA: Oso esperientzia polita izan zen.
VICKY: Beste proiektu batzuetan elkarrekin ibilitako jendearekin elkartu ginen, baina beste batzuek ez genituen ezagutzen, eta oso talde ona sortu genuen. Filmazioa nekagarria izan zen, baina oso giro ona izan genuen eta lan egiteko gogoz geunden. Berriz ere grabatzeko irrikitan gaude.
**Beraz, Voragineren lehen mokadutxoa bakarrik dastatu ahal izango dugu gaur?**
DALILA: Lehen kapituluak duen erantzuna ona edo txarra izan, aurretik pentsatuta genuena grabatuko dugu. Aurrera egiteko gogoz gaude, finantzazioarekin edo gabe. Demaseko babesa eskaini digu talde osoak. Hala ere, lehen kapituluarekin, aurrekontu eta baliabide gutxirekin zer egiteko gai garen erakutsi nahi dugu, eta, posible bada, gure proiektua babesteko jendea aurkitu.
VICKY: Websailaren atal guztiak idatzita daude, grabatzen jarraitu ahal izateko behar dugun finantzazioa bakarrik falta da. Publikoari lehen kapitulua gustatzen bazaio, enpresei atentzioa emango diela uste dugu.
**Dena dela, edonork eman diezaioke babesa websailari?**
DALILA: Bai, patreon.com eta ko-fi.com webguneen bitartez mikromezenasgorako bideak eskaintzen ditugu, eta jendeak babes ekonomikoa eskaini diezaioke proiektuari. Patreonen bitartez eginez gero, ekarpena egiten dutenek sariak lortzen dituzte hilero, ematen duten diruaren arabera: websailaren materiala inork baino lehenago ikustea, filmaziora etortzeko aukera, pertsonaia berriei izena jartzea...
VICKY: Bestetik, proiektu honen bitartez, jendea bere istorioa kontatzera animatu nahi dugu. Batzuek uste dute baliabide nahikorik ez dutela, edo zerbait sortzeko inor ez direla. Beraz, jendea gauzak sortzera animatzeko kameren atzean gertatzen dena eta sortze-prozesua erakutsi nahi dugu (hori da sarietako bat).
**Hiru urte daramatzazue proiektu honekin. Nolako prozesua izan da?**
DALILA: Gorabeherak izan ditugu eta nahiko gogorra izan da, lan asko egin dugu-eta, baina merezi izan du eta oso pozik gaude emaitzarekin.
**Pandemia erdian estreinatuko da Voragine. Egoerak kalte edo alde egin dizue?**
VICKY: Gauza biak. Batetik, alarma-egoera ezarri zen astean gauza batzuk grabatzeko asmoa genuen, baina ez zen posible izan. Eta bestetik, momentu aproposa da websaila aurkezteko, jendeak, halabeharrez bada ere, denbora gehiago ematen baitu etxean.
DALILA: Voragine ezingo dugu nahi genuen moduan aurkeztu, baina etorkizunean egingo dugu zerbait.

## Internet bidezko Rap tailerra antolatu dute ekainerako Rebeca Lane eta La Furiarekin

Rebeca Lane eta La Furiak rap ikastaroa eskainiko dute ekainean Lagun Artean elkartearen eta Andretxearen ekimenez. “Gure gorputzak eta buruak dituzten gaitasunak garatzera bultzatu nahi zaituztegu. Eta, horrekin batera, emakumeak musikan, bereziki, HipHop eta Rap kulturan betetzen duen paperaren paradigma apurtzera ere. Tailerrean, besteak beste, musika, erritmoak eta letrak sortzen ikasiko dugu, zapalkuntzak apurtuz eta alternatibak eraikiz”, diote antolatzaileek.

Tailerra online izango da eta bost saio izango dira guztira (ekainaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean), 18:00etatik 19:45era. Izena emateko andretxea@eibar.eus helbidera idatzi behar da eta parte-hartzaileek Jitsi plataforma erabili beharko dute ikastaroa egiteko.






## Euskeraren olatuak itxaron egin beharko du

Alarma-egoerarengatik ez balitz, bihar ailegatuko litzateke euskeraren aldeko olatua Eibarrera. Herriko euskalgintzako taldeek (eskolak, euskaltegiak, ...eta kitto!, hainbat elkarte, erakunde eta eragile) biharko zuten antolatuta Tantanez Tantan edo *Gantxilaren Eguna*, baina, momentuz, ezingo da egin. Antolatzaileei urtearen barruan egitea gustatuko litzaieke, “udazkenean, adibidez, baina ikusi egin beharko da egoerak uzten duen ala ez”. Gantxila eskurik esku ezin denez eraman, Eibarko euskalgintzak mezu hau dauka herritarrentzat: “Jantzi kamiseta urdina eta koadrodun zapia, eta bidali zuen elkartasun mezuak, bideoan, elkartea@etakitto.eus helbidera".

Adibide moduan esaldi batzuk prestatu dituzte, baina asmatu ere egin ditzakezue: “Tantanez Tantan, gu ere euskeraz blai!; Gora euskeraren olatua!; Aupa Eibar eta aupa euskera!; Guk ere bat egiten dugu euskeraren olatuarekin, eta zuk?; Eibarren euskeraz bizi nahi dugu!; Tantanez Tantan eibartarrok euskeraz blai!”. Olatua etorriko da berriro, indarberrituta, baina bitartean oihuka dezagun lau haizetara eibartarrok euskeraz bizi nahi dugula!”.

## Sostoa Abesbatzaren ohiko martxa eten arren, etxetik entseguekin jarraitzen dute



Bizi dugun egoerak behartuta, Sostoa Abesbatzak bertan behera laga behar izan zituen asteroko entseguak, baita lotuta zituen emanaldi eta jarduera guztiak ere: Aste Santuan urtero egiten duen kontzertu erlijiosoa, alargunen elkartearen urteurren ekitaldikoa, Tarragonatik etortzekoa zen abesbatzarekin elkartrukaketa, Sanjuanetakoa... baita Mendaron ezkontza baterako zuten hitzordua ere! Hala ere, urte hasieran Sostoak inbertsio garrantzitsua egin zuen, *Singerhood* aplikazioan izen-emateko eta, horri eskerrak, elkarrekin abesteko eta entsegu birtualak egiteko aukera izan dute, YouTubeko bere kanalean ikus dezakezuen moduan.




## Musika familian lantzeko kanala

Koronabirusaren pandemiaren ondorioz ezarritako koarentenak artista askoren sormenerako ahalmena izugarri piztu du eta, teknologia berriak eta sare sozialak tartean, bakoitzak bere etxetik lanean jarraitu ahal izateko bidea aurkitu du. Geldirik egon ez den horietako bat Maite Arroitajauregi (Mursego) eibartarra da. Besteak beste, Eibarko Musika Eskolan umeei ematen dizkien klaseak bertan behera geratu diren arren, nahi duten haur zein helduei musikarekin gozatzen jarraitzeko aukera bikaina eskaintzen hasi da, musika familian nola landu erakusteko YouTuben sortu duen kanalean: www.youtube.com/user/ninaizmursego helbidean sartuz gero, kantu ezberdinekin egindako bideoak aurkituko dituzue, koreografia eta guzti.

## “Asier Errasti” jaialdirako deia



Eibarko Udalak eta Plano Corto Kultur Elkarteak antolatuta, azaroaren 9tik 14ra bitartean burutuko den 21. “Asier Errasti” Film Laburren Jaialdirako izen-ematea astelehenaz geroztik dago zabalik (uztailaren 16ra arte). Parte hartu nahi dutenek elektronikoki burutu beharko dute inskripzioa www.eibar.eus helbidean. Film laburren lehiaketara aurkezten diren lanak ere webgune horren bitartez igo beharko dira internetera. Lehiaketan parte hartzeko betebeharrak, gainerako informazioa eta izena emateko orria Udalaren web orrian, Kultura atalean aurkituko dituzue.



## Zuzeneko estreinaldia online

Saray Garzia eibartarrak, Nadia Yagoubi eta Ada Continenterekin batera, Compañia X dantza garaikide konpainia sortu du. Taldeak “x.ponte” performancea aurkeztuko du online bihar, 19:00etan, Grupo Vuvuzela ekoizetxearen plataforman. Zuzeneko estreinaldirako sarrerak 4 eurotan eros daitezke, https://vuvuzela.es/producto/xponte/ helbidean.



**Natura: animalia asko... eta bakarra.** PERIKO IRIONDO.



## SUDOKUAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 3 | | 4 | 5 | 2 | 6 | |
| | | 2 | 9 | | | 5 | | 7 |
| | | | 8 | | | | | 3 |
| | 9 | | | | 1 | | | |
| 2 | | | | | | | | 5 |
| | | | 3 | | | | 2 | |
| 4 | | | | | 9 | | | |
| 8 | | 9 | | | 3 | 6 | | |
| | 5 | 1 | 4 | 7 | | 8 | | |

soluzioa



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 7 | | 8 | | |
| | 4 | 2 | | | 5 | | | |
| 5 | | 9 | 2 | | | | 3 | |
| 9 | 5 | 7 | | | | 1 | | |
| | | | | | | | | |
| | | 1 | | | | 9 | 5 | 8 |
| | 2 | | | | 7 | 6 | | 4 |
| | | | 8 | | | 2 | 7 | |
| | | 3 | | 2 | | | | |



soluzioa

## Kokatu eta aurkitu
## 16 mendien izenak

EIBARKO MENDILERROKO MENDIAK:

- **Urko**
- **Topinburu**
- **Lindari**
- **Garagoiti**
- **Eriano**
- **Arrate**
- **Aizketa**
- **Akondia**
- **Artarrai**
- **Azkonabieta**
- **Azurtzamendi**
- **Goikomendi**
- **Intxorta**
- **Kalamua**
- **Morkaiko**
- **Moru**













| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G | S | O | W | Q | U | Y | S | N | C | A | O | M | A |
| B | E | C | H | Z | P | S | X | S | W | Z | T | F | X |
| M | R | A | A | T | O | P | I | N | B | U | R | U | G |
| O | I | R | Z | A | L | I | N | D | A | R | I | X | O |
| R | A | T | K | Y | A | U | N | M | G | T | E | T | I |
| U | N | A | O | Z | K | R | G | O | W | Z | A | D | K |
| A | O | R | N | E | O | K | A | R | Q | A | R | D | O |
| I | K | R | A | D | N | O | R | K | J | M | R | K | M |
| Z | A | A | B | S | D | O | A | A | P | E | A | V | E |
| K | L | I | I | G | I | I | G | I | D | N | T | C | N |
| E | A | X | E | L | A | T | O | K | V | D | E | M | D |
| T | M | I | T | Y | V | M | I | O | K | I | T | M | I |
| A | U | I | A | V | I | N | T | X | O | R | T | A | P |
| F | A | Q | N | I | A | A | I | I | Q | C | B | Y | B |

## Telefono jakingarriak

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 20 15 25 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekua | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 70 08 28 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon/Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

## Farmaziak

**BARIXAKUA 22**
**EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)

**ZAPATUA 23**
**EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)

**DOMEKA 24**
**EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)

**ASTELEHENA 25**
**EGUNEZ | Lafuente** (Sostoatarren, 10)

**MARTITZENA 26**
**EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)

**EGUAZTENA 27**
**EGUNEZ | Iraundegi** (Calbeton, 19)

**EGUENA 28**
**EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)

**BARIXAKUA 29**
**EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)

**GAUEZ BETI**, 2020an,
**Barandela** (Ziriako Agirre, 4)

## Eguraldia (euskalmet.net)




## Hildakoak

- **Gabina Sanchez Cabeza.** 91 urte. 2020-5-15.
- **Mª Luisa Maitre-Jean Gorosabel.** 99 urte. 2020-5-16.
- **Ignacio Zubillaga Larrañaga.** 93 urte. 2020-5-18.

## Jaiotakoak

- **June Ros Valencia**. 2020-4-28.
- **Ilias El Ayssaoui**. 2020-5-4.
- **Yassin Ramane**. 2020-5-6.
- **Nikole Kortaberria Mendizabal.** 2020-5-7.
- **Jon Moya Urionabarrenetxea.** 2020-5-7.
- **Ismael Atmani Mokeddem.** 2020-5-10.
- **Arwa Brouyajil.** 2020-5-10.
- **Nora Fernandez de Pablo.** 2020-5-10.
- **Mariam Mohammadi.** 2020-5-10.
- **Katariñe Urbieta Borinaga.** 2020-5-11.
- **Dárida Caño Escribano.** 2020-5-14.

ek!
ESKELAK, URTEURRENAK ESKERTZAK... jartzeko:
943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

ek!
ETXEKOEN ZORION-AGURRAK bidaltzeko:
publizitatea@etakitto.eus




OINBERRI
ZAPATERÍA
Bidebarrieta 12. (Eibar) www.zapatosoinberri.com Telefonoa: 943 456 967



**943 20 09 18**
publizitatea@etakitto.eus

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**


Zorionak, **HELENE**, hillaren 18xan zure lehelengoko urtetxua ospatuko dozu-eta guraso eta aitton-amonekin.


Zorionak, **ANNE** Lasuen, martitzenian 3 urtetxo egin zenduazen-eta!!! Zein bizkor pasatu dan. Aitatxo, amatxo eta Markelen partez.


Zorionak, aitxitxa **JULIAN**, atzo 88 urte bete zenduzen-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, **AITOR**, domekan 7 urte egingo dozuz-eta! Musu potolo bat etxekuen partez.


Zorionak, **LUKAS** Unanue Thobie, martitzenian 3 urte egin zenduzen-eta. Arreba Ainhoa, anaixa Michel eta famelixa guztiaren partez.


Zorionak, **MARKEL**! Domekan 6 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat etxekuen partez!


Zorionak, **NAYELI**, hillaren 19xan 4 urte egin zenduazen-eta. Musu haundi bat asko maitte zaittuen famelixa guztiaren partez.


Zorionak, **AITANA**, bixar urtetxua beteko dozu-eta. Aitxitxa, amama, aitta, ama eta lehengusiña Maialenen partez.


Zorionak, **CLAUDIA**, gaur 8 urte betetzen dozuz-eta. Aitxitxa, amama, aitta, ama eta, batez be, zure anaixa Jonen partez. Musu pillo bat!!!!


Zorionak, **AIORA**, gaur urtetxua egitten dozulako, eta **AMATXO**ri be, domekan urtiak egingo dittu-eta. Musu haundi bat bixori famelixaren partez.


Zorionak!! Amatxo **IRAIA**ri urtebetetzia astelehenian pasau zebalako, eta **JOL** bere seme kuttunari atzo 7 urte egin zittualako. Amama Edurne eta aitxitxa Josuren partez.


Zorionak, **SABINA**, bixar 8 urte beteko dozu-eta. Etxeko guztien eta, batez be, Antonen partez.

ZURE DENDA, NEGOZIO edo ENPRESAREN PUBLIZITATEA JARRI NAHI BADUZU:
publizitatea@etakitto.eus
943 20 09 18 - 943 20 67 76

Torrekua, 2
20600 EIBAR
Tel. eta Faxa
943 20 62 48
Tel. 943 20 70 31
eseibar@facilnet.es
ESTACION DE SERVICIO EIBAR, S.A.
AVIA
Furgoneten eta Automobilen garbiketa automatikoa eta presioarekin
Lubrifikatzaileak
Gasoleoen zuzeneko banaketa
www.estaciondeservicioeibar.com



# Iragarki laburrak

**943 20 09 18**
publizitatea@etakitto.eus

**Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.**

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA
2.1. Salgai

3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan

4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Neska euskaldunak etxea hartuko luke alokairuan Untzagatik gorako auzoetan. Tel. 646-369330.
- Bikote arduratsuak eta lanarekin etxea hartuko luke alokairuan. Tel. 649-662386.
- Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. 2 logelarekin. Tel. 660-047305.
- Etxea hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 632-337083.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-907807.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256.

### 3.2. Errentan

- Lokala alokagai Urkin. 22 m2. Musika taldeen entseguetarako prestatua (guztiz isolatua). Komunarekin. 150 euro hilean. Tel. 679-843282.
- Garajea hartuko nuke alokairuan Urki, Txaltxa Zelai edo P. Etxebarria inguruan. Tel. 645-007388. Jasone.
- Lokal argitsua alokagai Jardiñeta kalean. Gazteentzat edo musika-taldeentzat aproposa. 140 m2. Etxebizitzik ez eraikinean. Tel. 656-756485.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Baita gauez ere. Tituluarekin. Tel. 602-490595.
- Emakumea arduratsua eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-120664.
- Eibarko emakume arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 658-845081.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 688-777600.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldatzeko. Tel. 632-167782.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta eurei etxeko lanetan laguntzeko. Tel. 612-223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 645-248040. Blanca.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Titulazioarekin. Tel. 666-197831.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernari edo dendari moduan lan egiteko. Tel. 644-071237.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Esperientzia eta ziurtagiriak. Tel. 603-514085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 612-246551.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-876380.
- Gizonezkoa eskaintzen da gauez nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-782442.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 637-137104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-810065.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 612-202116.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ziurtagiriarekin. Tel. 667-060292.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko eta mendiak garbitzeko. Tel. 602-188264.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-584198.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 623-319422.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-820091.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-115699.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-872627.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-492550. Alicia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-652496. Ana.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-486770. Teresa.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-800924. Ana.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Externa. Tel. 631-907532.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 635-480807.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 620-683911.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 665-348938.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-776998.
- Mutila eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 643-972119.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-721980.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604-120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketak egiteko. Tel. 634-621390.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 640-742618.
- Sendagile kubatarra eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eusko Jaurlaritzako ziurtagiriarekin. Tel. 688-863044.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukalde-laguntzaile moduan eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 643-929554.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 602-378091.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Asteburuetan. Tel. 688-724060.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 3 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tel. 688-712075.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 640-895039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 696-802587.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Ziurtagiriak eguneratuta eta erreferentziak. Tel. 699-587132.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 602-842219.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (07:00etatik 08:30era eta 18:30etik 22:30era). Baita asteburuetan ere. Tel. 660-542155.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauez ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 641-840425.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergo partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Selektibitaterako prestakuntza berezia on-line. Tel. 678-937827.
- Euskarazko klaseak ematen dira. Perfiletarako prestakuntza: IVAP, HABE... Umeentzako eskolako errefortzua. Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Kawai pianoa salgai. Oso egoera onean. Aulkia opari. Tel. 667-549101.
- Auto gainean jartzeko kutxa salgai. Evospace 400s etxekoa. Tel. 678-075299.

### 6.4. Bestelakoak

- Berbalagun talde bat osatu nahi dugu ingelesez berba egiteko. Horretarako, ama-hizkuntza ingelesa duen norbait behar dugu; trukean euskera/erdera beharko balu, gu prest laguntzeko. Tel. 628-780910.






bista eder

clinica dental - hortz klinika



Elkarrekin berreskuratuko dugu irribarrea.

bista eder

clinica dental - hortz klinika

**Deitu** | 943 70 00 82

bista eder, 19 20600 eibar

www.bistaeder.es

bistaeder_clinicadental